



## MEMORIA HISTORIKOAREKIN LOTUTA EGIN BEHARREKOEI BURUZKO ALKATE-DEKRETUA

2017ko urtarrilaren 30ean egindako osoko bilkuran, Gasteizko udalerriko memoria historikoarekin lotutako mozio bat onetsi zen, EH Bildu, EAJ-PNV, PSE-EE, Podemos eta Irabazi-Ganar talde politikoaren aldeko botoarekin eta PPren abstentzioarekin; gaia lantzeko sortutako lan-taldearen ondorioak jasotzen zituen mozioak. Haien irizpenak hirian garatu beharreko zenbait ekintza aipatzen zituen.

Harrezkero, irizpenean jasotako ekintzak abian jartzeko lan teknikoa egin da.

Besteak beste, kale-izendegia berrikustea proposatzen zen, baita frankismoaren garaian kargu publikoak edo esanguratsuak izan zituzten pertsonen emandako sariak ere. Gogoan izan behar da 2009an ere berrikusi zirela ohorezko sariak, eta 2008an, kale-izendegia, Memoria Historikoaren 52/2007 Legearen argitan. Batean zein bestean, kale-izendegia eta emandako sariak berrikusi ondoren hartutako neurriekin aipatutako legean ezarritakoa betetzen zela ondorioztatu zen.

Ahalik eta zorrotzen jokatzeko asmoz, Virginia López de Maturana doktoreari txostena egiteko eskatu zitzaion, gure hiriko frankismo garaian aditua baita. Gure eskerrik beroena eman nahi diogu egindako lanagatik. Haren ustez, historiaren ikuspuntutik eta Memoria Legearen beraren arabera, ez da beharrezko kale-izendegia aldatzea, ezta irizpenean aipatzen ziren pertsonen ohorezko sariak kentzea ere, Faustino Ortiz de Zárate Beitia jaunaren kasuan izan ezik.

Onetsitako irizpena gauzatzeko lehen proposamena, Lopez de Maturana doktorearen txostenan oinarritutakoa, aurkeztu eta talde politikoaren hasierako balioespena zein Memoria Historikoari buruzko Batzordearen proposamenak jaso ondoren, irizpen osoa berrikusi zen beste behin.

Balioespenean ikusi zen kale-izendegiaren eta ohorezko sarien inguruan sortzen zirela irizpena aplikatzeko ezadostasun handienak.

Hori ebazteko modu bat Memoria Historikoaren 52/2007 Legeak berak dioena aztertzea da; dagokigun kasuan, hauxe dio 15. artikulua:

*"15 artikulua. Ikur eta monumentu publikoak.*

*1. Administrazio publikoek, beren eskumenak betez, altxamendu militarren, Gerra Zibilaren eta Diktaduraren errepresioaren inguruko armarrak, intsigniak, plakak eta, modu pertsonalean edo kolektiboan, garai hura goraiatzen duten beste objektu edo aipamen guztiak kentzeko berariazko neurriak hartuko dituzte".*



Gainera, komenigarritzat jo da ikustea beste udal batzuetan artikulua hori nola interpretatzen ari diren. Madrileko Udaleko Memoria Historikoaren Batzordeak kale-izendegia eta ohorezko aipamenak berrikusteko 2016an egindako proposamen-txostenak hartu ditugu erreferentziatzat.

Formari dagokionez, kale-izendegiari zein ohorezko aipamenei buruzko txostenetan nabarmentzen da altxamenduaren eta diktaduraren zein diktadura frankistaren errepresioaren goraipamenak izan behar dutela jarduteko arrazoi nagusiak. Muinari dagokionez, hau da, 52/2007 Legearen 15. artikuluari dagokionez, Batzordeak irizpide honi jarraitzen dio: "bakarrik proposatzen da kaleari izena kentzea izendapen horren zio nagusiak argi eta garbi lotura zuzena badu 52/2007 Legeak aipatutako hiru gertaera historikoekin, eta bazter uzten dira lotura hori oso txikia den kasuak, edo bestelako merezimendu edo arrazoi batzuk daudelarik horien garrantziak lege arrazoiak apaltzen dituenean, hutsal bihurtzeraino".

Beraz, aipatutako 15. artikulua aplikazioari dagokionez, aurrera eramaten diren ekintzek lotura izan beharko lukete altxamendu militarren beraren, gerra zibilaren edo diktadura frankistaren errepresioaren goraipamen kontzeptuaren barruan sar litezkeen ekintza edo jokabideekin. Eta zehazkiago:

- Altxamendu militarren parte hartzea edo laguntzea.
- Estatuaren goi mailako estamentuetan nabarmen parte hartzea, funtzio esanguratsuak betez, hala nola errepresioarekin, ordena publikoarekin edo epaiketekin lotutako jarduerak, eta antzekoak.
- Diktadurari eta hainbat alorretan (gizartea, politika, sindikatuak, hezkuntza, lana, etab.) ezarri zen errepresioari eusteko laguntza erabakigarria eman zuen erakunde publiko eta pribatuen sarea osatu zuten antolakundeak edo taldeak.

Uste dugu jarduteko irizpide hori bat datorrela udal honek orain arte egindakoekin, eta gasteiztar gehienek sentipenari erantzuten diola.

Bestetik, herritarren eskabide bat jaso da, Luis Orgaz jaunari hiriko seme kutunaren izendapena kentzeko. Haren datuak aztertu dira, eta egiaztatu da altxamendu militarren parte hartu zuela, Franco jeneralarekin batera, Estatu Nagusiko burua izan zela eta Gerra Zibilean behin-behineko alferezen akademiak sortu zituela. 1997an kale bati haren izena kendu zioten, diktadura frankista ekarri zuen altxamendu militarrekin zuen erlazioagatik. Kale horri Alberto Schommer izena jarri zitzaion, baina 1925ean emandako seme kutunaren domina ez zioten kendu.

Azkenik, Antonio Peral Mazaren senideek eskatu dute Heinkel batek 1936an Plaza Berrian izan zuen istripua ahantz ez dadin; istripuan bi zibil —horietako bat aipatutakoa, 29 urte zituena— eta pilotu alemaniarra hil ziren, eta erregimen frankistak ezkutatu egin zuen. Zehazki, zibil hauek hil ziren: Antonio Peral Maza bera, Arredondon (Santander) jaioa, 29 urtekoa, ezkondua, alaba txikiak zituena eta Hedegile kalean bizi zena, eta Vicente López de Lacalle Erauskin, Maeztukoa, 20 urtekoa eta Hedegile kalean bizi zena.



## **XEDATU DUT:**

Gasteizen Memoria Historikoa eta frankismoaren biktimen duintasuna eta justizia berreskuratzeko ekintza hauek egitea:

### **1.- "Memoriaguneak" seinalezatzea eta frankismoaren biktimen aitortpena:**

#### 1.1.- "Memoriaguneak" sortzea.

Gure udalerriko frankismoaren biktima orori aitortpena, elkartasuna eta maitasuna adierazten dizkie Gasteizko Udalak, eta horretarako, lau "memoriagune" sortzea sustatuko du, haien oroitzapena bermatu, duintasuna itzuli eta justizia egitearren. Hauek izango dira lau "memoriaguneak":

- Santa Isabel hilerriko harresia,
- Bake kaleko kartzela,
- Karmengo komentua,
- Sagrado Corazón ikastetxea.

1.2.- Udalbatzaren kide errepresaliatu eta hildako oro —eta, hedaduraz, errepresio frankistaren biktima izandako gasteiztar oro— aitortzeko eguna sortzea. Martxoaren 31 izango da egun hori, data horretan fusilatu baitzuten Teodoro González de Zárate jauna, Gasteizko alkatea izan zena, beste 15 pertsonarekin batera.

1.3.- Teodoro González de Zárate jaunaren eta gainerako biktimen omenezko eskultura bat egitea. Biktimen oroimenezko zentroaren aurreko plazatxoan jartzea proposatzen da.

1.4.- Heinkel hegazkinaren istripuan hildako bi zibilak (Antonio Peral Maza eta Vicente López de Lacalle Erauskin jaunak) oroitzeko xafla bat jartzea Plaza Berrian, Deportivo Alavés tabernaren parean.

Gasteizen izandako frankismoaren biktimen errolda ofiziala lantzea, Gogora memoriaren institutuarekiko eta Arabako Foru Aldundiarekiko lankidetzan.

### **2.- Sinbolo frankistak kentzea edo testuinguruan jartzea:**

2.1.- Andre Maria Sortzez Garbiaren katedralean xafla bat jartzea, barruan dagoen armarri frankistaren esanahia azaltzeko, une historikoa eta sinbologia hori mantentzearen zergatia testuinguruan jartzeko.

2.2.- Olagibel kaleko Gobernu Ordezkariordeztan xafla bat jartzea, horrelako eraikin publikoetan ageri den armarri frankista testuinguruan jartzeko.

2.3.- Olarizu mendiko gurutzean xafla bat jartzea, Gasteizko udalerriko leku esanguratsuenetako bat baita, monumentua seinalezatu eta testuinguruan jartzeko, duen benetako esanahi historikoa ezagutu dadin, eta diktadurak ondoren egindako erabilera politikoa.



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

2.4.- Udalerriko hainbat etxebizitzatan dauden xafla frankistak kentzea, horretarako egindako errolda kontuan hartuz, aldez aurretik jabeen erkidegoei jakinarazita eta udal aurrekontuaren kontura.

Puntu hau gauzatzeko, ekintzek behar dituzten izapideak egingo dira.

### **3.- Esku-hartzea ohorezko karguetan eta kale-izendegi frankistan:**

3.1.- Izapideak egitea hiriaren zilarrezko domina Faustino Ortiz de Zárate Beitia jaunari kentzeko, diktadura goraiatzeko emate argia baita.

3.2.- Izapideak egitea Luis Orgaz jaunari hiriaren seme kutunaren izendapena kentzeko, altxamendu militarrean parte hartu eta diktadura frankistan aktiboki parte hartu baitzuen.

Aurreko hau guztia eragotzi gabe, Udalak Memoria Historikoarekin lotutako ekimenak jarri ditzake martxan ebidentzia edo arau berriak badaude.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko urtarrilaren 12a.

**Alkate lehendakaria  
Gorka Urtaran Agirre**